

Maletak egitea

Plaza del Sol, Vila de Gràcia, Països Catalans. Nork bisitatu du Bartzelona eta ez du enklabe herrikoi hori ezagutzen? Duela hamarkada luzea jada, nerabea nintzela, lagunak alboan, nire sortzetiko hiriaren mila eta bat gau deskubritu nahi genituenean, gure bidean sozializatzen ari ziren gazte andana batekin biltzen ginen bertan. Ordu hartan askatasun espazio bat zen. Lurrean esertzen ginen, biribilean, eta orduak ematen genituen berbetan, gitarra jotzen eta garagardo bat hartzen... Baina, gustuak gustu –beti ez du euri egiten denon gustura–, lo egin nahi zuten auzokideak molestatzen genituen azkenean.

Horretaz kontziente, geuk ere hiri handiko auzoak habitatzeko genitueneko gero, arreta eta ardura gehiago hartzen ikasi genuen. Ahots tonua apaltzen saiatzen ginen, zentzuzko ordu batean erretiratzen ginen... Alabaina, hormonek beti irabazten zuten borondate onaren aurka. Iritsi zen unea, ez ginen aitzindariak jada, non plaza betetzen joan zen geroz eta gehiago. Harrezkero, polizia eszenatokian sartzen zen gaurerdi aldean, miaketak eginez, solaskide guztiak uxatuz eta lurzorua ureztatzen zuten udal zerbitzueta garbitzaileei bidea zabaltzen. Zoladuran ezin eseririk, toki hark bere xarma galdu zuen, bertan biltzen jarraitzeak ez zeukan zentzurik.

Denbora aurrera joan da. Udaldi osteko lanaldi hasieran, gazte garaiko epizentrorra itzuli nintzen: “Bizi zaitez Gràcia eta utzi bizitzeko, zure askatasunak ez dezan gainerakoena murriztu” edota “Zure oihuak ozen entzuten dira etxe barruan... Gracià ez zaitugu entzun nahi!”, kartel handiek zartatu zuten nire kontzientzia. Plazaren albo batean daude zintzilik, katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez. Azken idioma hori da, handik pasa nintzen azken aldian, gailentzen zena.



David Bou

‘LA DIRECTA’-KO KAZETARIA
@dvdbou

Mundu globalizatu honetan, Marokora hegaz egitea Euskal Herrira joan-etorria autoz egitea baino merkeago den honetan, zein da egoera horren berrero ez izateko gure ardura eta konpromisoa? Neurri batean, biktima garen epidemia horren erantzule gara eta

Aldi horretan, euria egiten zuenean aterpetzat genuen teilatupea kendu dutela jabetu naiz harriduraz, lurzorua gogorra bihurtzen zitzaigunean erabiltzen genituen barandaxoen ordez, altzairu zorrotzeko zutabeak zeudela, baita plaza alboko eskaileretan loreontzi-euskarriak ere ipini dituztela, inor ez dadin eseri. Antza denez, jendea uxatzearekin nahiko ez, eta harago joan dira: plastikozko gela moduko batzuk ezarri dituzte, haurrentzako txokoak modukoak, plazaren zabalera gutxitzeko ezin eroso egon ahal izateko.

Eraldatze prozesu hori eman ahala, betiko bizilagunen bizitoki aldaketa izanda, zarata handiak uxatuta etxeko aldatzera behartuta, edota, sinpleki, turistifikazio prozesuak ezarri duen alokairuen igoerari aurre ezin eginik, traba bihurtu direlako. Auzoko gazteek ezin dute plaza baliatu, izan ere, parke tematiko horretan ez dute esertzeko tokirik, ezta modernotasunez jantzitako horrenbeste dekadentzia behatzeko lekurik ere. Euren neurriko negozioa eraikitzeke erabili gaituzte, espazio publikotik kanporatuz. Haatik, ni ere horren arduraduna sentitzen naiz hein batean.

Mundu globalizatu honetan, Marokora hegaz egitea Euskal Herrira joan-etorria autoz egitea baino merkeago den honetan, zein da egoera horren berrero ez izateko gure ardura eta konpromisoa? Neurri batean, biktima garen epidemia horren erantzule baikara. Hipokrita baita, lege kanpoko etxebizitza turistikoetan ostatatzen direnak madarikatzea eta New Yorkera Airbnb batean lo eginez bidaizatzea. Ostalaritzako hitzarmen duin bat eskatzen dugu eta Baliko gune turistikoan deskantsatzen dugu. Bertako langileak esklabatasun moduko baldintzapean ari direnen bitartean, gure hiriko txoko kuttunean ezin dugula lasai egon kezkatzen gara, areago, Instagramen argazkiak zintzilikatzen pasatzen dugu hilabete osoa, uharteko greziarretan “aurkitu” ditugun hondartza “galduek” kokapena emanez.

Bidaia ez da helburua, bertara iristeko urratzen dugun bidea baizik. Paraje exotikoetan esperientziak kontsumitzeko dugun mendebaldar pribilegioari uko egin diezaiozun. Ikas dezagun bisitatzen ditugun tokietan harremanak lantzen begirunez. Egun zenbait pasatzeko gure motxilak husten ditugunean, izan gaitzeen ziur ez dugula bertako inor maletak egitera behartu bizitza osorako. ■